

Arartekoaren 2014R-944-14 Ebazpena, 2014ko abuztuaren 26koa. Horren bidez, Errenteriako Udalari gomendatu zaio kontu-hartzailearen lanpostua aldi baterako betetzeko iragarritako deialdiaren oinarriak berrikus ditzala.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan (...)ren kexa-idazki bat jaso zen. Kexagileak Errenteriako Udalak kontu-hartzailearen lanpostua aldi baterako betetzeko iragarri zuen deialdi batean parte hartu zuen.

Giza Baliabideen ordezkariaren 2014ko apirilaren 11ko komunikazio batek eragin zuen interesdun horrek erakunde honen esku-hartzea eskatzea. Komunikazio horren bidez, sei hilabeteko aldiari praktiketako funtzionario izendatzeko aukera proposatu zen, kontu-hartzailetzako goi-mailako teknikariaren lanposturako.

Komunikazio horretan azaldu zenez, alkateak, 2014ko martxoaren 4an, Gipuzkoako Foru Aldundiari (hemendik aurrera, GFA), gaikuntza nazionaleko bitarteko funtzionarioak izendatzeko organo eskuduna denez, hautapen-prozesuan jazo zena jakinarazi zion eta kalifikazio-epaimahaiaren proposamenarekin bat etorri izendatzeko eskatu zion. Hala ere, GFak adierazi zuen hautapen-prozesuak probaldi edo praktikaldi bat barne hartzen zenez prozesua amaitu arte jarraitu behar zuela eta orduan ezin zela bitarteko kontu-hartzaile izendatu.

2. Interesdun horren kexa izapidetzeko onartu ostean, zentzuzko tratamendu bat emateko beharrezkoak diren iritzi-elementu guztiak edukitzeko helburuarekin, erakunde honek egokitzen jo zuen GFaren lankidetzaren eskatzea. Izan ere, jakin nahi genuen hain zuzen Errenteriako Udalak kontu-hartzailetzako praktiketako goi-mailako teknikari izendatzeko proposamen hori formalizatzeak alduki egin zituen oharrei erantzuten zien.

Gure eskaerari erantzunez, GFak txosten oso bat helarazi zigun. Errepikakorrak ez izateko, ondoko gogoetetan emango dugu horren berri.

3. Bestalde, informazio hori ezagutu ostean, ondoko oharretan orobat azalduko dugunez, Errenteriako Udalari kontu-hartzailetzako praktiketako goi-mailako teknikari izendatzeko proposamenaren ordezkari beste aukera batzuk azterrarazten saiatu gara, kontu-hartzailearen lanpostua aldi baterako betetzeko iragarri zen hautapen-prozesuari jarraitutasuna emate aldera.



4. Dena den, kexa izapidetzean egindako kudeaketak gorabehera, Errenteriako Udalak ez du bere jarrera aldatu. Horrela, kexa jartzea eragin zuen apirilaren 11ko lehen komunikazioari dekretu bat jarraitu dio, 2014ko maiatzaren 5ekoa. Dekretu horrek, interesdunak egindako alegazioak ezetsi ostean, iragarritako prozesua hutsik dagoela adieraztea ebatzi du, interesdunak proposatutako izendapena onartzeari uko egin baitio. Azkenik, bigarren dekretua egin da, 2014ko ekainaren 30ekoa; horren bitartez, lehen dekretuaren aurka jarritako berraztertzeke errekurtsua ezetsi eta dekretu horri bere osotasunaren eutsi diote.

Gogoetak

1. Uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak —gaikuntza nazionalako funtzionarioentzat gordetako toki administrazioko lanpostuak betetzeari buruzkoak— 34. artikuluan ezartzen duenez, lehentasunezko edozein prozeduraren bidez (behin-behineko izendapena, zerbitzu-eginkizunak eta metaketa) gaikuntza nazionalako langile funtzionarioentzat gordetako lanpostu huts bat aldi baterako bete ezin denean, ukitutako toki-korporazioek proposa dezakete, berdintasunaren, merezimenduaren, gaitasunaren eta publikotasunaren printzipioak errespetatuz, lanpostua dagoen azpieskalan eta kategorian sartzeko eskatzen den titulazioa daukan pertsona bat bitarteko funtzionario izendatzea; azken ahalmen hori —izendapenarena—, EA Eren kasuan eta errege-dekretu horren beraren bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, kasuan kasuko foru-erakundeei dagokie.
2. Aukera hori erabiliz, Errenteriako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2013ko azaroaren 20an, kontu-hartzailearen lanpostua aldi baterako betetzeko deialdia zuzendu behar zuten oinarriak onartu zituen.

Oinarri horiek ezarri zutenek, hautapen-prozesuak iragarritako pertsonak (EAEko 2008. urterako lan-eskaintza publikoko kontu-hartzailetza diruzaintza azpieskalan, sarrerako kategorian, sartzeko hautapen-prozesuko lehen ariketa gainditu zuten eta euskarako HE2 egiaztatuta zeukaten parte-hartzaileek) dagoeneko egiaztatu zuten puntuazioa aintzat hartu behar zuen eta kanporaketa-ariketen emaitza, oposaketa-fasean beharrezkoa, kontuan izan behar zuen; horrez gain, sei hilabeteko praktikaldi bat barne hartu behar zuen (bigarren oinarria).

Bestalde, bederatzigarren oinarriak, izendapena eta probaldia arautu zuenak, ezarri zuen organo eskudunak kalifikazio-epaimahaiak proposatutako hautagaia bitarteko funtzionario izendatuko zuela horretarako beharrezkoa den dokumentazioa emandakoan, eta sei hilabeteko probaldi bat gainditu behar zuela.

3. Deialdi hori, behin iragarrita, normaltasun erlatiboz iragan zen harik eta alkateak, kalifikazio-epaimahaiak orain kexagilea den hautagaiaren alde egin zuen proposamena ezagutu ostean, GFARI haren izendapena eskatzea erabaki zuen arte. Orduan, udalaren arabera eta ebazpen honen aurrekarien lehenengo puntuari islatu dugunez, GFAK udalari esan zion hautapen-prozesua amaitu arte jarraitu behar zuela eta une horretan ez zela bidezkoa bitarteko kontu-hartzaile izendatzea.

Udalaren bertsio hori bat dator funtsean GFAK helarazi digunarekin. Aldundiak dioenez:

“Bidalitako espedientea aztertu ondoren, 2014ko martxoaren 25eko idatzi bidez, hauxe erantzun zion Foru Aldundiak udalari: ez zegokiola hautaketa prozesua zuzena izan zen aztertzea -hori ez zelako bere eskumena-, baizik eta bere egitekoa zela Errenteriako Udalak proposatutako pertsona bitarteko funtzionario izendatzea. Eta horri zegokionez, berriz, oinarri arautzaileek praktikaldi bat aurreikusten zutenez eta espedientean ez zenez ageri praktikaldi hori egin eta gainditu zenik, martxoaren 25eko idatzi horretan ondorio gisa esaten zen prozesua ez zela amaitu eta, beraz, Foru Aldundiak ezin zuela une horretan eskatutako izendapena egin; eta Errenteriako Udalari zegokiola hautaketa prozesuarekin jarraitu ala ez erabakitzea, hura burutu arte.

(...)

Hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiari zegokion Errenteriako Udalak proposatutako pertsona bitarteko funtzionario izendatzea hutsik zegoen lanpostua betetzeko; baina proposamen hori egin behar zuen udalak horretarako martxan jarritako hautaketa prozesua burutu ostean, oinarri arautzaileek aurreikusitako praktikaldia barne.

Horregatik, 2014ko apirilaren 16ko idatzi bidez, udalak zituen zalantzak argitze aldera erantzun zitzaion ezen aurreko paragrafoan adierazitako baldintzetan Foru Aldundiak, foru aginduz, proposatutako pertsona bitarteko funtzionario izendatu arte, indarrean zirauela 2013ko irailaren 13ko 616/2013 Foru Aginduaz Lezoko Udaleko kontu-hartzaileari baimendutako metaketak; eta proposatutako hautagaiaren praktiketako



izendapena nola egin udalak berak ebatzi behar zuela, bere hautaketa prozesuetan aurreikusten dituen praktikaldiak gauzatzeko egin ohi duenaren arabera.

(...)

Hori guztia dela eta, gure iritziz, ezin da justifikatu aukeratutako hautagaia praktiketan "kontu-hartzaitzako goi mailako teknikari" izendatzea Foru Aldundiak emandako erantzunean (martxoaren 25 eta apirilaren 16koan) oinarrituta. Praktiketako izendapen hori hautaketa prozesua arautzen duten oinarrien (zehazki 2. eta 9. oinarrien) aplikazio hutsa da; eta oinarri horiek Erreenteriako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zituen 2013ko azaroaren 20ko bileran."

4. Esan behar dugu ulertzen dugula GFAk eskatutako izendapenari ekiteari uko egite horrek oztopo bat ekarri ahal izan diola Erreenteriako Udalari, GFAk praktikaldiari buruzko inolako eragozpenik adierazi ez baitzuen, batik bat deialdiaren oinarriak GFAko Foru Administrazioaren eta Funtzio Publikoaren Departamentuak emandako jarraibideei jaramon eginez egin zirela aintzat hartuta.

Hala ere, oinarrien idazketa ikusita, orobat ulertzen ditugu GFAk proposatutako hautagaiari bitarteko izendapena egiteko adierazi dituen oztopoak, baita GFAk Erreenteriako Udalari prozesua amaitu arte jarraitzeko erabakia agindu izana ere.

Hain zuzen ere, gure aburuz, komenigarria da argitzea gai horretan izan dugun esku-hartze guztiak azken alderdi hori hartu duela abiapuntu, hau da, iragarritako hautapen-prozesuaren izapidetzea osatzea Erreenteriako Udalaren erantzukizuna dela onartzea. Hortaz, Erreenteriako Udalari kontu-hartzaitzako praktiketako goi-mailako teknikari izendatzeko proposamenaren ordezkoko beste aukera batzuk azterrarazten saiatu gara, kontu-hartzailearen lanpostua aldi baterako betetzeko iragarri zen hautapen-prozesuari jarraitutasuna emate aldera; hori guztia, konbentzitura gaudelako, GFAk egindako oharren aurrean, prozesuari jarraitutasuna emateko har daitekeen erabaki edo aukera bakarra ezin dela izan kalifikazio-epaimahaiak proposatutako hautagaia praktiketan izendatzea kontu-hartzailearena ez den beste lanpostu batean egitea izan behar dela uste izatea.

5. Horrela, kontu-hartzaitzako goi-mailako teknikari izendatzeko proposamenari dagokionez, erakunde honek ohartarazi du proposamen hori deialdia zuzentzen duten oinarrietatik urruntzen dela eta, beraz, ez datorrela haiekin bat. Gainera, interesdunarentzat izan dituen ondorio kaltegarriak nabarmendu nahi izan ditugu; izan ere, proposamen hori onartzeari uko egitearen ondorioz, kontu-hartzailearen lanpostua betetzeko itxaropenak behin betiko zapuztu zaizkio.



Horren guztiaren ondorioz, Errenteriako Udalari eskatu diogu horri dagokionez hartutako ebazpen guztiak ondoriorik gabe utz ditzala.

Lehen urrats horren ostean eta gure iritziz begi bistakoa denez deialdiaren oinarriak praktikaldia egikaritzeko izendapenari dagokionez betetzea materialki ezinezkoa dela, erakunde hau Errenteriako Udalari oraingo deialdiaren baldintzak berrikusteko aukera azterrarazten saiatu da, praktikaldi hori bitarteko funtzionario kontu-hartzaile izendatzeko baldintza gisa beharrezkoa izan ez dadin eta horretarako prozedura administratiboaren araudi erregulatzailerak xedatzen dituen berrikusteko bide juridikoak erabil ditzan.

6. Errenteriako Udalak helarazitako erantzunean, nabarmendu du deialdiaren oinarriak behartu egiten dutela uste duela; jurisprudenzia-dotrinari jarraiki gogorarazi duenez, oinarriok hautapen-prozesuaren legea dira eta administrazio deitzailea nahiz bertan parte hartzen dutenak lotzen dute. Hori dela-eta, haren aburuz, proposatutako hautagaiari sei hilabeteko probaldi edo praktikaldi bat gainditzeko eskatu behar dio. Gogoeta horren ondorioz, aldundiak hartutako jarreraren arabera praktiketan zehar kontu-hartzailearen lanposturako izendatuta izateko ezintasuna ahaztu gabe eta hautagaia kontu-hartzailetzako praktiketako goi-mailako teknikariaren lanposturako izendatzea onartzeari uko egin diola ere ahaztu gabe, errepikatu du dagoen aukera bakarra prozesua hutsik dagoela adieraztea dela.

Modu horretan, deialdiaren bederatzigarren oinarrian xedatutakoa betetzeko ezintasun materiala berriaz onartu badu ere (*Eskumena duen organoak* (hau da, Gipuzkoako Foru Aldundia) *Epaimahaiak proposaturiko bitarteko funtzionarioa izendatuko du, beti ere aurreko oinarrian aitutzen den dokumentuak aurkeztu ondoren. Langileak sei hilabeteko probaldia gainditu beharko du*), praktiketan zehar kontu-hartzailearen lanposturako izendatuta izatearen bideraezintasuna baieztatu duenean, Errenteriako Udalak erakunde honek iradoki duena aztertzea saihestu du. Hain zuzen ere, iradoki duguna ez da Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko azaroaren 20an onartutako bigarren eta bederatzigarren oinarrietan xedatutakoa ez betetzea —hori aurpegiratu baita erantzunaren zati batean—; laburbilduz proposatu duguna udalak oinarri horien edukia ofizioz berrikusteko beharra bere gain hartzea da, horretarako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 102. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako berrikuspen-prozedurei jarraituz.



Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak araututako ofiziozko berrikuspenerako bideak erabil ditzala, Tokiko Gobernu Batzarrak kontu-hartzailearen lanpostua aldi baterako betetzeko deialdia arautze aldera 2013ko azaroaren 20an onartutako bigarren eta bederatzigarren oinarriak betetzeko ezintasun materiala gainditzeko helburuarekin.

Azken dekretua, 2014ko ekainaren 30ekoa, baliogabetu eta ondoriorik gabe utz dezala; hain zuzen ere, dekretu horrek aurreko dekretuari, 2014ko maiatzaren 5ekoari, egindako hautapen-prozesua hutsik dagoela adieraztea ebatzi zuenari, bere osotasunean eusten dio.